

## HAUTAKETA-PROZESUA

Bihotz Berdeak proiektuan parte hartzeko hautaketa-prozesuak bi zati ditu.

- **Lehen zatia** izen ematean bertan egiten da: [esteka honetan](#).  
Motibazio eskutitz bat eta galdera sorta bat erantzun beharko duzu.

- **Bigarren zatian** bi froga dituzu. Hauetako bat egin behar duzu eta [bihotzberdeak@ekogunea.eus](mailto:bihotzberdeak@ekogunea.eus) –era bidali zure izen abizenak ipinita.

Lehen eta bigarren zatiak **uztailaren 25erako** burutu behar dira.

## LEHEN ZATIA

---

### 1- Motibazio eskutitz laburra (orrialde erdiko luzera)

Gaia: Zergatik nahi duzu bihotz berdea izan?

### 2- Galdera laburra erantzun

Erantzun ezazu modu laburrean hurrengo galdera hauei.

- Zein da zure animaliarik gustukoena. Zergatik?
- Zein da zure landararik gustukoena? Zergatik?
- Zein da zure natur-eremurik gustukoena? Zergatik?
- Hiru animalia hauetatik, zein EZ DA hegazti bat? Zozoa, kardantxiloa, erbinudea.
- Hiru zuhaitz hauetatik, zein EZ DA hosto erorkorrekoa? Haritza, Intsinis pinua, lizarra.
- Zein da zure ustez, Gipuzkoan babes behar duen biziduna? Zergatik?

## BIGARREN ZATIA

---

**Lehen zatia egin ondoren, aukeratu froga hauetako bat eta burutu.**

### A FROGA – Zure txoko kuttuna

Joan zaitetz zure gustukoena den eremu natural batera grabagailu edo mugikorrarekin. Graba ezazu entzuten dena eta gero deskribatu; on zaude? zer ikusten duzu? Zergatik zaude hor? Zein zuhaitz mota daude? Eta animaliarik?

Bidali iezaguzu audioa.

Inspiratzeko hemen natur zale famatu batzuk bere lanean.

Felix Rodriguez de la Fuente

<https://www.youtube.com/watch?v=UGwcK5jxVVA&t=237s>

David Attenborough

<https://www.youtube.com/watch?v=ndMKTnSRsKM&list=PL50KW6aT4Ugx4NtWBIvawKub7sOxPeFmH>

Aadya Joshi

<https://www.youtube.com/watch?v=FFUSvIKqWE0&t=59s>

### B FROGA – Besteentzako ipuin kuttuna

Aukeratu bizidun bat eta egin ezazu bizidun honen garrantzia adierazten duen ipuin edo kontakizun bat haur txikientzako. Gehienez bi orrialdekoa.

Ipuina egiteko lagungarri.

- Aukeratu protagonista biziduna: animalia, landarea, onddoa...
- Nola izena du protagonistak? Izen dibertigarria jarri.
- Zein dira bere lagunak?
- Non bizi da?
- Zer gertatu zaio? Zergatik?
- Gizakiak errurik ba al du gertatu zaionarekin?
- Nola konpondu dezake arazoa?
- Laguntzarik jaso al du? Norena?

## BIDALKETA EPEA

---

Gogoratu: **uztailaren 25erako** ondoko emailera bidali behar dituzue bi zatiak, zuen izen abizenak ipinita. Laster arte!!!!

[bihotzberdeak@ekogunea.eus](mailto:bihotzberdeak@ekogunea.eus)

943 552 020 – 943 251 909